



**PROZEDURA-MEMORIA**

**EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEEI  
BURUZKO LEGEA  
BOSGARREN ALDIZ ALDATZEKO  
LEGE-AURREPROIEKTUA**



## I. AURREKARIEN AZALPENA ETA LEGE-EKIMENAREN JUSTIFIKAZIOA

Autonomia Estatutuaren 10.3 artikulua araberan, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain du Eusko Legebiltzarrari dagokion hauteskunderi buruzko barne-legeriaren gaineko eskumena. Eskumen horren egikaritzea Estatuak hauteskunde-gaietarako dituen eskumen-tituluek baldintzatzen eta moldatzen dute, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua eta lotutako 149.1 artikulua oinarri hartuta eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan islatuta.

Autonomia Estatutuaren aipatutako eskumena garatze aldera, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldarrikatu zen. Lege-arau hori onartu zenetik, hainbat aldiz aldatu da Eusko Legebiltzarreko lau legeren bidez (15/1998 Legea, ekainaren 19koa; 6/2000 Legea, urriaren 4koa; 1/2003 Legea, martxoaren 28koa; eta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa). Aldaketa horiek egin ziren hauteskunderi buruzko euskal lege errealitate politikora eta sozialera egokitzeko, indarrean zeuden arauak oinarri hartuta.

Gaur egun, 5/1990 Legea indarrean sartu zenetik izan diren autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuen ondorioz hartutako esperientziak, Hauteskunderi buruzko gure Legeari, oinarritzko zenbait gaitan, eragiten dion Estatuko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa hainbat aldiz aldatu izanak eta orobat Konstituzio Auzitegiaren doktrinak eta Hauteskunde-administrazioak proposatutako gomendioek garbi utzi digute erabat komeni dela lege hori aldatzea.

Aipatutako Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoko azken aldaketak egokitu beharrak zuzen-zuzenean eragiten dio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legeari, azken horrek Lege Organikoko zenbait artikulua hausten eta hartan jasotzen ez diren zenbait gai arautzen baititu.

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa aldatzen duen urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak, bere aldetik, aipatutako Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren oinarritzko artikulua eta oinarritzkoak ez direnak aldatzen ditu (Hauteskunde Batzorde Zentralaren bateratzeko ahalmena, hauteskunde-batzordeek errekurtsioen epeak zehaztea, hauteskunde-mahaien eraketa, hauteskunde-publizitate eta -propaganda, hauteskunderi buruzko informazioa hedatzea, bozketen garapena eta bigarren hauteskunde-aurrerapena ematea), eta aldaketa horiek nahitaez sartu behar dira Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legean.

Beste zenbait hobekuntza teknikok ere justifikatzen dute Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legea aldatzea: pezetatan dauden kopuru guztiak eurotara aldatzea, esaterako, Legean agertzen diren kopuruak ere euro konstantetara eguneratuz. Hauteskundeekin lotutako dokumentazioa baliabide elektronikoaren bidez betetzeko teknologia berriak erabili beharrak ere justifikatzen du aldaketa, bai eta zenbait organismo eta erakunderen izenak aldatu direla-eta haiek eguneratu beharrak ere.

Beste zenbait arrazoi ere badaude Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legea aldatzeko, hala nola hauteskunde-batzordeen administrazio-jardunaren legezotasunaren kontrol judizialari eta hauteskunde-txartelen aldaezintasunari buruz Konstituzio Auzitegiaren doktrina berriena txertatzea, bai eta hautaezintasun-zioei

buruzko hainbat auzi, hauteskunde garaian kanpaina instituzionalek izan beharreko xede eta mugak, eta gai horiei buruzko zehapen-araubide bat ezartzea argitzeari buruz hauteskunde-batzordeen arteko akordioak ere.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Euskal Legeak ezarritakoa oinarri hartuta ere, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea aldatu eta egokitu beharra dago eta, beraz, emakumeen aldeko zenbait ekinbide positibo ezarri behar dira autonomia-erkidegoetako hauteskunde-prozesuetan, hauteskunde-mahaletako kide ez izateko arrazoi gehiago onartuz, hala nola haurdunaldia oso aurreratuta egotea nahiz edoskitzaroa.

## II.- LEGE-AURREPROIEKTUAREN IZAPIDEKETA

1.- 2013ko azaroaren 27an, Segurtasuneko sailburuaren aginduz, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea bosgarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektua egiteko prozedurari ekitea agindu zen.

2.- Barne-gogoetari ekin eta ezinbesteko prestakuntza-azterketak egin ostean, lehen zirriborroa idatzi zen.

3.- 2013ko azaroaren 27an, Segurtasun Saileko Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak lege-aurreproiektuari buruzko azalpen-memoria eta memoria ekonomikoa igorri zituen. Halaber, generoaren araberako eraginaren behin-behineko txostena igorri zuen.

4.- 2013ko azaroaren 27an ere, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak lege-aurreproiektuari buruzko txosten juridikoa igorri zuen, eta, hartan, aurreproiektua legearekin bat datorrela ondorioztatzen da.

5.- Data berean, Segurtasuneko sailburuak lege-aurreproiektua onetsi zuen.

6.- Ondoren, herritarrei proiektuaren berri emateko, jendurreko epea zabaltzen zela argitaratu zen 2013ko abenduaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean. Lege-aurreproiektua iragarkia EHAA-n argitaratu eta biharamunetik hogeit egun balioduneko epean egon zen eskuragarri bai Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-oholean ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)) bai Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzan.

7.- 2013ko abenduaren 20an, txostena eskatu genion Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari, eta 2014ko urtarrilaren 16an igorri ziguten eskatutako txostena. Aurrerago aztertuko ditugu txostenean egindako ohartarazpen eta proposamenak.

8.- 2014ko urtarrilaren 16an, manuzko txostena eskatu genion EMAKUNDEri – Emakumearen Euskal Erakundea- eta 2014ko urtarrilaren 23an igorri ziguten eskatutako txostena. Aurrerago aztertuko ditugu txostenean egindako ohartarazpen eta proposamenak.

9.- 2014ko urtarrilaren 31n, lege-aurreproiektuaren bigarren zirriborroa idatzi genuen. Bigarren zirriborro horretan honako hauek jaso genituen: alde batetik, hizkuntza ez-sexista erabiltzeari buruz EMAKUNDEk egindako oharrak; bestetik, Herri

Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txosten juridikoan iradokitako egokitzapenak; eta azkenik, jendaurreko izapidean Urtzi Saratxaga jaunak eginiko alegazioetako bat.

9.- 2014ko otsailaren 20an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak bere txostena igorri zигun.

10.- 2014ko otsailaren 25ean, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruzko ebaluazio-txostena igorri zuen.

11.- 2014ko apirilaren 16an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 67/2014 Irizpena eman du lege-aurreproiektuaren gainean.

### III.- JASOTAKO OHARREN ETA EGINDAKO ALDAKETEN LABURPENA

Lege-aurreproiektuaren izapideketan, hain zuzen jendaurreko izapidean, aurreproiektuaren eduki materialari buruzko oharra eta iradokizunak jaso ditugu. Hala, Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikokoaren bidez ([www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)) Urtzi Saratxaga jaunak alegazio-idatzia aurkeztu digu.

Era berean, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eta EMAKUNDEK –Emakumearen Euskal Erakundea- ere zenbait ohar egin diote lege-aurreproiektuaren testuari.

#### - Urtzi Saratxaga jaunak lege-aurreproiektuari eginiko alegazioak

Lehenengo alegazioa: lege aurreproiektuaren 27. artikulua, indarrean den hauteskunde-legearen 79. artikulua aldatzen duena.

Alegazioak planteatzen du propaganda jartzeagatik espediente izapidetzeko eta dagokion zigorra ezartzeko eskumena udalek izan ordez Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek izatea; izan ere, alegazio egilearen esanetan, zenbait udalek askotan ez dituzte aipatutako espedienteak abiarazten, espedienteok udal horiek gobernatzen dituzten alderdien aurkakoak izango zirelako. Hortaz, eskumen hori Eskualdeko Hauteskunde Batzordeek izatean, independentzia eta objektibotasuna gehiago bermatuko litzateke.

Zehatzeko ahala udalei atxikitzearen legezko arrazoia Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 73.1 b) artikuluan xedatutakoan oinarritzen da, zeinean zehaztu egiten da Udalak direla organo eskudunak hauteskundeetako propaganda grafikoa jartzeko leku berezien katalogo iraunkorra eratu eta eguneratuta izateko. Hortaz, udalak dira gai-arlo horretan zehapenak hobekien ezar ditzaketenak. Gainera, gure iritziz, lege aurreproiektuaren 27. artikulua berme nahiko ezartzen die udalei hautagaitzek espediente zehatzaile bat irekita izan dezaten eta interesdunak entzunaldia izan dezan zehapena jaso aurretik.

Hori dela eta, uste dugu ez dagokiola alegazio hori onartzerik.

Bigarren alegazioa: Lege-aurreproiektuaren hogeita zortzigarren artikulua euskarazko bertsioan jasotzen denaren ildotik arautzea.

Euskarazko bertsioan, hauteskondeak izan baino hamabost egun lehenago jartzen du. Alegazio egileak alegatzen duenez, agian ez da posible hori betetzea, baina zentzu gehiago dauka gaztelaniazko bertsioan baino; izan ere, azken honetan, hauteskondeak igaro eta 15 eguneko epean ezartzen da. Hau da, debekatutako lekuetan propaganda jarri eta hura behin hauteskondeak igarota kentzeko beharra baino ez dutela esateak ez dauka zentzurik, alegazio egilearen ustez.

Lehenengo alegazioari dagokionez, alegazio egilearen interesa eskertu behar dugu; izan ere, berak ohartarazi bezala, errakuntza bat dago lege-aurreproiektuaren 28. artikuluko euskarazko bertsioaren idazketan. Hala, gaztelaniazko bertsioaren idazketa da zuzena, alegia propaganda kentzeko epea hauteskondeak igaro eta hamabost egunera ezartzen duena, ez euskarazko bertsioan jaso bezala, hauteskondeak egin baino hamabost egun lehenago.

Hori dela eta, artikulua horren euskarazko idazketa zuzendu dugu.

Bigarren alegazioari dagokionez, lege-aurreproiektuaren 28. artikulua propaganda kentzeko epea hauteskondeak igaro eta hamabost egunera ezartzearen arrazoi praktikotasuna besterik ez da, udalek leku ez baimenduetan jarritako propaganda grafikoaren jarraipena eta kontrola modu errazago batean gauza dezaten. Gure aburuz, propaganda hori kentzeko epea bozketa eguna izan baino lehen jartzen badugu, jarraipena eta kontrola egitea zailagoa izango litzateke.

Horrenbestez, ez dagokio alegazio hori onartzerik.

Hirugarren alegazioa: indarrean dagoen Legearen 89.2 artikulua.

Alegazio egileak proposatzen du debekatzea alderdi, federazio edo hautesle taldeek hautesleei boto-papera ematea kanpainan zehar.

Alegazio hori oinarri duen artikulua ez dago lege-aurreproiektuan jasota. Beraz, ez dagokio alegazio hori onartzerik.

#### - EMAKUNDEK eginiko oharra

1. Aurreproiektuan beste aldakuntza bat sartzeko proposatzen digute, hautaezintasun-karia izan dadin 5/1990 Legearen 4.6 artikuluan bai sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala ezarri izana, zehapena ezarritako aldi, bai emakumeen aurkako indarkeriagatik delitua egiteagatik epaiz kondenatua izatea, nahiz eta epaia irmoa ez izan.

Ezin dugu proposamen hori onartu; izan ere, hautaezintasun-kariak lege-organikoko erreserba dute, hauteskunde araubide orokorraren zati diren heinean (Espainiako Konstituzioaren 81.1 artikulua). Nolanahi ere, gehiegizkoa litzateke hautaezintasun-karien artean administrazio arau-hauste batengatik zehatua izan izana sartzea. Zentzu horretan, proposamena bideraezina litzateke.

2. Hauteskunde-mahaietako kide izateko desenkusa-kariei dagokienez, proposatzen digute aurreproiektuaren hamalagarren artikulua honako hauek jaso ditzala:

- Haurdun dauden emakumeei medikuak emandako baja hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gisa hartzea.
- Hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gisa onartzea emakumeen erditu ondorengo nahitaezko atsedenaldira.
- Amatasun- nahiz aitatasun-baimena dutenei, adin txikikoak nahiz mendeko pertsonak zaintzen daudenei hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gehitzea.
- Alda dadila bederatzir hilerako arteko edoskitze naturalaren aldir dauden emakumeen salbuespen-karia, horren barruan edoskitze artifiziala ematen dauden emakume zein gizonak ere sartzeko.

3. 4/2005 Legearen 26.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, proposatzen digute aurreproiektu honen hogeita laugarren artikuluan debeku bat ezartzea pertsonak, sexu batekoak edo besteak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu-objektu soilak direla adierazten duen publizitate edo propaganda oro egiteko, emateko edo erakusteko, eta baita emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, horri garrantzia kendu edo horretara bultzatzen duen oro ere.

4. Proposatzen digute aurreproiektuaren 52. artikuluan debeku bat sartzea diru-laguntzarik ez emateko sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala ezarri zaien pertsonak edo 4/2005 Legearen 3. artikuluan xedatutakoa betetzen ez duten pertsonak dituzten hautagaitzei (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa).

Bada, txosten horren edukia aztertu ostean, uste dugu ez dagokiola proposamen hori onartzerik; izan ere, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legean araututako diru-laguntzak ematea debekatzeko, ez dirudi arrazoi nahikoa denik administrazio arau-hauste batengatik zehatua izan izana. Zigor tipoari dagokionez, berriz, uste dugu hori ere ezin dela aintzat hartu, debekua gehiegizkoa izango litzakeelako, hautagaitzen finantzazioa guztiz kentzea ekarriko bailuke.

Bestalde, badirudi debeku hori murriztailea dela emakumeen aurkako indarkeria delituengatik kondenatuak izan diren, zigorra bete duten eta beren burua hauteskundeetara aurkezteko birgaituta dauden hautagaien hautagarritasun-eskubideari dagokionez.

Edonola ere, delitu horrengatik kondenatutako pertsona batek ezin du bere burua hautagai moduan aurkeztu aurrekari penalak indarrean dituen bitartean. Beraz, zati batean betetzen da jada EMAKUNDEK –Emakumeen Euskal Erakunde- bilatutako xedea, diru-laguntza emateko debekua ezarri beharrik gabe.

Lege-aurreproiektuaren testuan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzeko iradokizunei dagokienez, gaztelaniatzko testuaren hemeretzigarren artikuluan hiru aldiz zuzendu ditugu “candidato”/ “candidatos” terminoak; eta hogeigarren artikuluan “los suplentes” eta “el titular” terminoak aldatu ditugu.

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eginiko oharrak

Oharrok aztertuta, bere osotasunean onartzea iritzi diogu, eta, hortaz, memoria honetako 4. epigrafean azaldutako moduan jaso ditgu aurreproiektuaren testuan.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena

1. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 4.3 artikulua aldaketari dagokionez –euskal sektore publikoko karguen hautaezintasuna arautzen du- ohartarazten digute arauak koherentzia gorde behar duela Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauetan erabilitako terminologiarekin. Iradokizuna onartu dugu, eta, hortaz, zentzu horretan aldatu dugu.

2. Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 151. artikulua dagokionez –hauteskundeetarako dirulaguntzei buruzkoa- Lehen Xedapen Gehigarria eta Bigarren Xedapen Iragankorra aztertuta ohartarazten digute izozketa agintzen duten neurriak zurruneziak direla eta ez dela oso argi geratzen noiz aplikatuko diren, alegia hurrengo hauteskundeetan soilik aplikatuko diren edo Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauen aplikazio eremutik kanpo kokatzen diren. Gure ustez, ordea, xedapenon idazketa argia da, eta ez du zalantzarik eragiten. Azken gaiari dagokionez, estatuko dirulaguntza-legean jasotako bazterketak ez du ezertan ukitzen euskal arauketaren berezko eremuan xedatutakoa.

3. Txostenaren gainerako oharrek zehazten dute lege-aurreproiektuko neurriek aurrekontuan duten intzidentzia. Neurri horiek prozeduran jasotako memoria ekonomikoan azertu genituen.

4. Espedientearen izapideei dagokienez, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak planteatzen digu hausnartu behar zatekeela Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legearen 6. artikulua aplikagarritasuna, -16/2012 Legea, ekainaren 28koa-, eta horren arabera, enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruzko txostena jaso espedientearen (manuzkoa). Iradokizun horri men eginez, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruzko txostena jaso du espedientearen.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpena

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren Irizpenak alde batetik adierazten du irizpenera aurkeztu zaion testuak, funtsean, berdintasun asko gordetzen duela aurreko legegintzaldian irizpenera aurkeztu zitzaion testuarekin.

Bestetik, baliozkotu egiten du HAOLO legearen oinarriko arauak izandako aldaketetatik eratorritako aldaketak txertatzeko erabilitako araugintza-teknika.

Legearen 4. artikulua (hautaezintasuna) aldaketari dagokionez, ohartarazten digute argitu beharra dagoela hautaezintasunak izendapen askeko sistemaren bidez hautatuko funtzionarioei eragiten dien ala ez. Iradokizuna onartu dugu eta artikulua zentzu horretan aldatu dugu.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren iritziz, 36 Bis artikulurako proposatutako aldaketak -egoera jakinetan hizkuntza ofizialen erabilerari buruzkoak- nahasmena sor dezake, erabileraren bermea idatzizko harremanera soilik mugatzen baitu. Egindako ohartarazpena onartu dugu eta aldaketa-proposamena kendu dugu.

Hauteskunde-mahaiko burua izateko betekizunak arautzen dituen 43.2 artikuluari dagokionez, proposatzen digute ikasketa-tituluen izendapenak eta horien baliokidetzenak eguneratzea. Iradokizuna onartu dugu eta artikulua zentzu horretan aldatu dugu.

Irizpenean egiten diguten iradokizunari jarraiki, gaztelaniazko testuan, arau-hausteei buruz hitz egiterakoan, “podrán” hitza aginterazko aditzekin ordezkatu dugu.

Halaber, ezabatu egin dugu leku ez baimenduetatik propaganda grafikoa kentzeko aurreikusitako aldaketa. Onartu egin dugu irizpenean ñabardura horren kongruentzia ezari buruz egin diguten ohartarazpena.

Aholku Batzordearen iritziz, Legearen 146 h) artikuluari buruzko proposamenak –hauteskundeetarako bulego- eta zerbitzu-gastutzat jotzea boto-asmoari buruzko inkestak eta zundaketak- talka egiten du Hauteskunde Batzorde Zentralaren interpretazioarekin –gastu horiek ez ditu sartzen HAOLO legearen 130.b) artikuluan-. Aldiz, gu ez gatoz bat Aholku Batzordearen interpretazioarekin. Hauteskunde Batzorde Zentralak ondorioztatu zuen –zuzen ondorioztatu ere- hautagaitza batek boto-asmoari buruz egindako zundaketa-gastuak ezin zitzaizkiola botoa bideratzeko propaganda-gastuei egotzi, baina zalantzarik ez dago tresna horiek ezinbestekoak direla hauteskunde-kanpainan hautagaitzen hauteskunde-estrategia finkatzeko eta zuzentzeko. Beraz, alde horretatik, beharrezkoak dira hauteskundeetako zerbitzu moduan. Hori dela eta, testua aldatu dugu, premisa horri indar handiagoa emateko.

Irizpenean ohartarazten digutenez, aldaketa-arau moduan jaso behar dugu Legearen X. kapitulua ezabatzen dela, boto elektronikoari buruzkoa, eta xedapen indargabetzailean sartu behar dugu arau-balio autonomoa duen 15/1998 Legearen zatia, hauteskunde-legean sartuta ez dagoena. Ohartarazpena onartu egin dugu eta testua zentzu horretan aldatu dugu.

Araugintza-teknikari dagokionez, Aholku Batzorde Juridikoak hainbat ohar egin digu, guztiak bere osotasunean onartu ditugunak.

Azkenik, Aholku Batzorde Juridikoak mahai gainean jartzen du Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen euskarazko jatorrizko bertsioa teknikoki zaharkituta geratu dela, eta iradokitzen digu barne-gogoeta egin dezagula bertsio hori eguneratzeko beharrari buruz, bai hizkuntza jakin bateko bertsioaren hutsen-zuzenketa teknikaren bidez, bai Jaurlaritzari buruzko Legearen 52. artikulua ildotik abiatuta Jaurlaritzari habilitazio bat eginez testu bategin harmonizatu bat egin dezan.

Bada, arazoaren garrantziaz jabetzen bagara ere, esan behar dugu Jaurlaritzari buruzko Legearen 52. artikulua ildotik abiatuta proposatzen diguten lege-eskuordetza hain zuzen ere artikulua horretan ezartzen den mugaren aurka doala; izan ere, artikulua horrek debekatu egiten du halako eskuordetak egitea hauteskunde araubide orokorrari dagozkion gai-arloetan. Eta, bestalde, euskarazko jatorrizko idazketa eguneratzeak ekarriko lukeen luzera eta sakontasunak bideragarritasun



eskasa ematen dio hutsen-zuzenketaren teknika erabiltzeari testu osoan sakabanatuta dauden huts zehatzak zuzentzeko.

#### **IV.- XEDAPEN OROKORRAREN EDUKIEN AZALPENA ALEGAZIOAK AZTERTU OSTEAN. EGINDAKO ALDAKETEN AZALPENA ETA ATZERA BOTATAKO ALEGAZIOEN JUSTIFIKAZIOA**

Hori guztia argitu ondoren, indarreko 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzkoa, zer gai-alor jakinetan aldatzen den azter dezakegu. Hauek dira aldaketa horiek, laburtuta:

##### **A) Sufragio pasiborako eskubidea**

5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoko a) hizkia aldatzen da. “Enpresa” terminoa eransten zaio, eta “erakunde instituzionalak” terminoaren ordean “herri-erakundeak” hobesten da. Aldaketok zehaztasun terminologikoa dute helburu.

Artikulu horri dagokionez, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ohartarazi digu bilatzen dena sozietate publikoei erreferentzi egitea baldin bada, nahikoa dugula adierazpide hori erabiltzearekin, ez dela beharrezkoa “enpresa” hitza gehitzea. Gauza bera gertatzen da “nagusiki horiek parte-hartzen duten sozietateak” esamoldearekin; izan ere, azken horiek sozietate publikoak dira ere bai. Ohartarazten digute, halaber, ez zaiela inolako erreferentziarik egiten Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten fundazioei ezta nortasun juridiko propioa duten partzuergoei ere.

Laburbilduz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren aburuz, lege-aurreproiektuak esparru zehatza jorratzen duen arren, ordenamendu juridiko autonomikoaren koherentzia gorde beharra dago, xedapen ezberdinen artean disfunkzionerik sor ez dadin, horrek ez baitu laguntzen araua aplikatuko zaien segurutasun juridikoa bermatzen.

Beraz, aldaketa batzuk sartu ditugu Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen (5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa) 4. artikuluko 3. paragrafoko a) eta e) hizkietan. Aurrerantzean, honela idatzita geratzen da:

*“Bat. 4. artikuluko 3. paragrafoaren a) hizkia honela idatzita geratzen da:*

*«a) Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko sektore publikoan:*

*1. Sailburuorde, idazkari nagusi, zuzendari edo, horien antzeko, Administrazio orokorrean izendapen askeko, beste edozein kargu.*

*2. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko administrazio instituzionaleko erakundeetan nahiz sektore publikoko gainerako erakundeetan lehendakari, zuzendari nagusi, idazkari nagusi, gerente edo horien pareko izendapen askeko beste edozein kargu betetzen dutenak, aurreko karguen pareko funtzio betearazleak dituztenak. Alabaina, Eusko Legebiltzarreko kideak, erakunde, herri erakunde, edo zuzeneko nahiz zeharkako herri partaidetzazko sozietateetako zuzendaritzako kidego organoak edo Administrazio Kontseilukoak izan daitezke, horien izendapena Eusko Legebiltzarrari baldin badagokio.*

*3. Ararteko edo Arartekoaren Laguntzailea; Herri-Kontuen Euskal Epaitegiko burua edo kidea; Ebazpen-Batzordeko burua edo kidea; Ekonomia eta Gizarte-Kontseiluko burua; eta erakunde horietan diharduten izendapen askeko karguak.*

*4. Euskal Irrati Telebista erakunde publikoko zuzendari nagusia, erakunde hori osatzen duten sozietate publikoetako zuzendariak eta organikoki sozietate horietan kokatzen diren komunikabideetako zuzendariak.»*

*“Hiru. 4. artikuluko 3. paragrafoaren e) hizkia honela idatzita geratzen da:*

*«e) Lurralde Historikoen eta toki-administrazioen arlo publikoan:*

*1. Lurralde Historikoko administrazio publikoko zuzendari nagusiak edo kargu horren balioakideak, eta foru erakunde autonomoetan, foru erakunde publiko enpresarialetan, zuzenbide pribatuko foru erakunde publikoetan, merkataritzako foru sozietateetan eta foru sozietate publikoetan lehendakari, zuzendari nagusi, gerente edo horien pareko beste edozein kargu betetzen dutenak.*

*2. Tokiko erakunde autonomoetan, kapital publikoko tokiko merkataritza sozietateetan, eta tokiko erakunde publiko enpresarialetan edo nagusiki horien parte hartzea dutenak.*

*Dena den, hautagai izateko aukera izango dute diputatu nagusiek edo foru-diputatuek, alkateek edo zinegotziek, baldin eta erakunde, enpresa edo sozietate horietako berezko kide badira, izendapen askekoak izan gabe, hain zuzen ere erakunde edo sozietate horien estatutuetan hala dagoelako berariaz aurreikusita.»*

Aldatu egiten dira 5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoa b) hizkiaren 2. eta 3. puntuak horien idazketan genero-ikuspegia txertatzeko.

5/1990 Legearen 4. artikuluko 3. paragrafoa e) hizkia aldatzen da. Argitu egiten da hautatua izateko ezintasunaren arrazoiak zenbait alderdi. Besteak beste, zehaztu egiten da hautatua izateko ezintasun-karien araubidea sozietate-kapitala herri-administrazioen partaidetzaz osatua duten sozietate edo enpresa publikoetako karguentzat, aurreproiektuaren 4. artikuluko 3. paragrafoa a) hizkian ezarritakoaren arabera. Hori guztia arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak horri buruz hartu dituen erabakiak betetzeko (1990-09-29ko erabakia, 194. zenbakiko EHAA, 1990-09-27koa; 1994-09-10eko erabakia, 178. zenbakiko EHAA, 1994-09-19koa; 2005-03-22ko erabakia, 49. zenbakiko EHAA, 11-03-2005-03-11koa).

Aldatu egiten dira Eusko Legebiltzarrerako Legearen 4. artikuluko 4., 5. eta 6. paragrafoak, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetara aurkezten diren hautagaiei aplikagarri zaizkien hautaezintasunei buruzkoak.

Bestalde, 7. paragrafoa eransten zaio 5/1990 Legearen 4. artikuluari, epai bidez kondenatuak izan diren pertsonen aplikagarri zaien zenbait hautaezintasunari buruzkoa (HAOLOko 6.2.b artikulua). Hori horrela izango da, epaia irmoa ez bada ere.

## **B) Hauteskunde-administrazioa**

Aldatu egiten da 5/1990 Legearen 20. artikuluko 4. paragrafoa. Artikulu horrek ezartzen duenez, Legebiltzarreko letratuek, baita informatika-zerbitzuak ere, behar den aholkularitza juridiko eta teknikoak burutuko dituzte, Autonomia Erkidegoko

Hauteskunde-batzordeari agindutako eginkizunak betetzeko. Horrekin bilatzen da Batzorde horrek Eusko Legebiltzarreko informatika zerbitzuen aholkularitza izatea; izan ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen euskarri informatikoa beharrezkoa izan daiteke aurreproiektuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako bozketa elektronikoen testak aurrera eramateko.

Aldatu egiten da 5/1990 Legearen 29. artikuluko e) hizkia. Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen doktrinak lurralde historikoetako eta eskualdeetako hauteskunde batzordeen erabakiak bateratzeko gaitasuna indartzen du hauteskunde araubidearen aplikazioaren gai-alorrean, beti ere HAOLO legearen 19.3.d) artikuluan araututako termino berberetan, azken horri 2/2011 Lege Organikoak eman dien idazketan.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 29. artikuluko j) hizkia aldatzen da. Eurotan zehazten ditu pezetatan ezarritako isunen zenbatekoak, eta barne hartzen du Legearen 87.7 eta 132. artikuluetan xedatutako salbuespena.

Horrez gainera, lurralde historikoetako eta eskualdeetako hauteskunde-batzordeek ezar ditzaketen zehapenen gehieneko zenbatekoak arautzen dira. Zenbateko horiek, oro har, 1.200 eurokoak eta 600 eurokoak dira, hurrenez hurren. Hori egiteko, aldatu egiten da 5/1990 Legearen 30. artikuluko 1. paragrafoko d) hizkia, HAOLO lege organikoaren 19.2. artikulua aldatuaren ildoan.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko legearen 36. artikuluari 3. paragrafoa eransten zaio. Paragrafo horretan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen akordioak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena. Aldaketa horrek artikulua hobetzea dakar; izan ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordearen web ofiziala errealitate bat da, eta interesgarri deritzogu aurreproiektuan errealitate hori aintzat hartzea, kontuan izanik hauteskunde informazioaren arloan teknologia berriek izan duten garapena.

Ildo horretatik, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak igorritako txostenaren b-1 puntuan adierazitakoarekin bat etorritik, 12. artikuluan euskarazko bertsioa aldatu dugu, akats bat eta zehaztugabetasun bat antzeman baitute. 12. artikuluan, euskaraz, 3. paragrafoa aldatzen zela esaten zen, baina benetan egiten dena da 3. paragrafo bat erantsi, artikulua horren gaztelanizko bertsioak ondo jasotzen duen moduan. Bestalde, 12. artikuluan, euskaraz, esaten da web orriaren akordioak “euskaraz eta erdaraz” jasoko direla, baina egokiagoa eta zehatzagoa da esatea “euskaraz eta gaztelaniaz”, hala zehazten baitu euskara eta gaztelania euskal autonomia erkidegoko hizkuntza koofizial moduan ezartzen dituen arauketak.

Hori dela eta, euskarazko bertsioaren testuak honela esan beharko luke:

*“Hamabigarren artikulua: Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Legearen 36. artikuluari 3. paragrafoa erantsi zaio. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da:*

*«3. Nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde-batzordearen akordioak, euskaraz zein gaztelaniaz idatzita, web orri batean sartuko dira, ondorio hauetarako gaituko dena».*

Bestalde, txosten horretako b-2 puntuan ezarritakoari jarraiki, komenigarria da aurreproiektuaren 16. artikuluan –Legearen 44.1 artikulua aldatzen duena- zehaztea

hauteskunde-mahaiko kideek jasoko duten eskuliburua ele bietan idatzita egongo dela, euskaraz eta gaztelaniaz.

Halaber, txostenaren b-3 puntuak zehaztutakoarekin bat etorritz, komenigarria da aurreproiektuaren testuan beste artikulua bat sartzea 103. artikulua aldatzeko. Aldaketaren ondorioz, hauteskunde-mahaiko buruak bozketari hasiera emateko euskaraz erabiliko duen adierazpidea egokitu dugu. Hala, aurrerantzean, euskaraz, “bozketa hasten da” ozenki esanez emango dio mahaiburuak hasiera bozketari. Beraz, zuzendu egin ditugu gaztelaniazko bertsioan ageri den “boto emanteta hasten da” adierazpide zaharkitua eta euskarazko bertsioan ageri den “boto-emanketa hasten da” adierazpide zaharkitua.

Era berean, txostenak b-4 puntuan zehaztutakoarekin bat eginez, eta aurreko paragrafoan adierazitako arrazoi berberengatik, egoki deritzogu hauteskunde-mahaiko buruak bozketari amaiera emateko erabiliko duen adierazpidea zuzentzea. Hala, 112. 1 artikuluko “boto-emanketa bukatzera doa” adierazpidearen ordez “bozketa bukatzera doa” adierazpidea sartu dugu.

Bestalde, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 38. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da. “Internet” terminoaren ordez “web orria” hobesten da, estiloa hobetze aldera.

Idazketa berria ematen zaio 5/1990 Legearen 44. artikuluko 1. paragrafoari, HAOLO lege organikoaren 27.3 artikulua xedatzen dituen terminoetan; hala, eskualdeko hauteskunde-batzordeak derrigortzen ditu modu laburtuan arrazoitzera zergatik ezetsi dituzten mahaikide ez izateko aurkeztu diren zuribideak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak irizpideak bateratzeko duen ahalmena arautzen da.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 88. artikuluko 1. paragrafoa aldatzen da, formatu elektronikoa ezartzeari buruzkoa hauteskundeetara aurkeztuko den hautagaien boto-paperetarako, zein hauteskundeetako zenbait inprimaketarako ere. Aldaketa horren xedea da teknologia berriak hauteskunde prozesuan txertatzea.

Teknologia berrikuntza horri esker, hautesleek, edozein lekutan bizi direla, Eusko Jaurlaritzako webgunetik jaitsi ahal izango dute hautatutako boto-papera. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak, paper-euskarrian eskaintzen jarraituko die hautesleei hautagaitza guztien boto-paperak.

Aldatu egiten da 5/1990 Legearen 132. artikulua, hauteskunde-arauak hausteagatik eurotan ezarritako zehapenen zenbatekoa HAOLO legean jasotako zenbatekoekin parekatzeko (153.1 eta 2 artikulua).

Bestalde, hauteskunde-batzordeek hauteskunde garaian eta garai horretatik kanpo errekurtsioak ebazteko izango dituzten epeak zehazten dira (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 134. artikulua, HAOLO lege organikoaren 121.1. artikulua arautzen duenaren harian).

Horrekin batera, kendu egin da errekurtsioaren aurka errekurtsio judizialik ez zegoela ezartzen zuen xedapena. Horrela jokatuta, Espainiako Konstituzio Auzitegiaren doktrinari erreparatzen zaio (149/2000 epaia, ekainaren 1ekoa),

hauteskunde-batzordeen administrazio-egintzen legezkotasunaren kontrol judizialaz diharduenean.

### **C) Hauteskunde-prozedura**

Hauteskunde-mahaiei eta horien osaketari dagokienez, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeen Legearen 42. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da, hauteskunde-mahaietan titular edo ordezkogisa parte hartzeko desenkusa aurkeztu ahal izango dutelarik, beharrezko agiriak edo, hala behar duenean, medikuaren egiaztagiria aurkezturik, besteak beste, haurdunaldian seigarren hilabetetik aurrera eginda dauden emakumeak eta amatasun-atsedenaren aldiak daudenak, eta bederatzi hilabetera arteko haurra edoskitzen ari direnak. Hori guztiori, indarrean den Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen babesean (4/2005 Legea, otsailaren 18koa), hauteskunde prozesu autonomikoetan berdintasuna lortzeko.

Hauteskunde-mahaiak eta haien osaera arautzean, hirurogeita hamar urtera igotzen da adina, baina horrek ez du esan nahi betebeharra denik hautesle horientzat (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 43. artikuluko 2. paragrafoa, HAOLO legearen 26.2.I. artikulua haren).

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legearen 50. artikuluko 2. paragrafoaren b) hizkia aldatzen da hautagaitzako kideen izen abizenen ondoan horien ezizena edo goitizena jartzeko, gai-arlo horretan Hauteskunde Batzorde Zentralak emandako doktrinarekin bat etorritik (HBZren erabakia, 2008ko urtarrilaren 24koa).

5. paragrafoa erantsen zaio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legearen 50. artikuluari, hautagaitzetako ordezkoen zerrendan genero-kuotak aplikatzeari buruzkoa (AEHBren erabakia, 2005eko martxoaren 17koa).

Hauteskunde-kanpainetako publizitate-arabidea ere aldatu da. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak hauteskunde-prozesuari buruz egiten duen kanpaina instituzionala alderdi hauen berri ematera mugatzen da: bozketaren eguna eta lekua, botoa emateko prozedura eta boto-eskubidea erabiltzeko gainerako formalitateak, atzerrian bizi diren egoiliarrenak barne. Erantsi egiten da hauteskunde-kanpainari buruzko publizitateak bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko duela (horretarako, 5/1990 Legearen 68.3. artikulua aldatzen da, HAOLO legearen 50.1. artikulura egokitzeko). Horrenbestez, hauteskunde-kanpaina instituzionaletan ezingo da parte-hartzea sustatu.

Hauteskunde-kanpainaren edukia zabaltzea beharrezkoa suertatzen da, izan ere, praktikan, 2009 eta 2012ko hauteskundeetan egin izan da jada. Bestalde, hauteskunde-kanpainan bi hizkuntza ofizialak erabiltzearena Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legetik eratorritik da (10/1982 Legea, azaroaren 24koa).

Halaber, debekatu egiten da hauteskunde-kanpainan publizitate instituzionala egitea, legegintzaldian egindako lorpenei buruzko ekitaldi instituzionalak egitea eta obrak, zerbitzuak edo proiektuak inauguratzeko edo aurkezteko ekitaldiak egin edo haien berri ematea (horretarako, 68 Bis artikulua berri bat erantsen zaio 5/1990 Legeari, HAOLO legearen 50.2 eta 3 artikuluetara egokitzeko). Arau horren urratzeak zehatzeko arabidea ezartzen da.

Bestalde, 5/1990 Legearen 71. artikulua aldatzen da. Hauteskundeetan aurkezten diren talde politikoek posta bidezko botoaren izapideei buruzko informazioa eman dezakete. Halaber, hautagaiak eta hauteskunde-programak aurkez ditzakete, baldin eta botoa eskatzen ez bada ekitaldi edo mitinetan, edota liburuxkak edo kartelak banatzen ez badituzte. Era berean, hautagaiak eta ordezkariak aurkez ditzakete edozein hedabidetako elkarrizketetan eta mahai-inguruetan, baita talde politiko baten hautagaien argazkiak, izena, hautagaitzaren siglak edo sinboloak edo hauteskunde-sloganak erakustea ere talde horren egoitzetako eta lokaletako kanpoko fatxadan.

Era berean, alderdiek web orriak, blogak eta sare-sozialak sor edo erabil ditzakete, edo hautagaiak eta hauteskunde-programa ezagutarazteko mezuak edo posta elektronikoak, edota horiei buruzko artikulua edo informazioak zabaldu, hori egiteko kontraturik ez bada egin behar.

Aldaketa horren xedea da Legearen 71. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetako idazketa hobetzea Hauteskunde Batzorde Zentralak martxoaren 24an emandako 3/2011 Instrukziora egokitzeko, HAOLO legearen 53. artikuluan hauteskunde kanpaina egiteari buruz jasotako debekuen interpretazioari buruzkoa.

Ezabatu egiten da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 72. artikuluko 3. paragrafoa, telebista pribatuetako emisoretan hauteskunde publizitatea egiteko saioak kontratatzea debekatzen duena, Legearen 81. artikulura igortzeko, artikulua horretan hobeto kokaturik dagoelako ustean.

Kostuen murrizketaren ildoan sakontzeko, 5/1990 Legearen 75.2 artikulua aldatzen da, HAOLO legeak bere 55.3 artikulua aldatutako termino berberetan. Hala, proposatzen da hautagaitzek hauteskunde-propagandarekin egiten duten gastua %20 murriztea hauteskunde-kanpainaren baitan baimentzen diren merkataritza-tarteetan kartelak jarri.

Idazketa berria ematen zaio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 79. artikuluari, propaganda jartzeagatik ezarritako zehapenei buruzkoari. Aldaketa horren ondorioz, "hautagaitzak" adierazpidea eransten da, testuari zehaztasun handiagoa emateko.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen V. tituluaren II. kapituluaren laugarren ataleko izenburua aldatzen da. Aurrerantzean honela idatzita geratuko da: «Hauteskunde-kanpainen komunikabideak erabiltzea».

Hauteskunde-kanpainen komunikabideak erabiltzeari dagokionez, hauteskunde-publizitatea egiteko saioak kontratatzea debekatzen da, bai titulartasun publikoko komunikabideetan, bai telebista pribatuetako emisoretan (5/1990 Legearen 81.1. artikuluko idazketa aldatzen da).

Hauteskunde-informazioa titulartasun pribatuko komunikabideetan zabaltzeko araubidea HAOLO lege organikoko 66.2. artikulua ezartzen dituen arau eta printzipioen arabera izango da, eta Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak kontrolatuko du jardun hori (2. paragrafoa eransten zaio 5/1990 Legearen 85. artikuluari).

Debekatu egiten da hauteskunde-inkestak argitaratu eta haiek zabaldu edo erreproduzitzea edozein komunikabidetan hauteskundeak izan aurreko bost egunetan eta hauteskunde-egunean 20 orduak arte (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 87. artikuluko 7. paragrafoa, HAOLO legearen 69.7. artikulura egokitzeko).

Bostetik laura murrizten dira artekari bakoitzari buruzko taloi-orriak. Aldaketa horren xedea da inprimaki hori Estatuak hauteskunde orokorretarako, udal hauteskundeetarako nahiz hauteskunde europearretarako darabilen inprimakiarekin uniformizatzea eta homogeneizatzea, ez baitaude orri hori.

Bozketari berari dagokionez, aldaketa batzuk egin dira.

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzari agintzen zaio prozedura bat arautzeko, ikusteko desgaitasunak edo zailtasunak dituzten pertsonak boto pertsonala eta irisgarria emateko aukera izan dezaten (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 104. artikuluko 3. paragrafoa, HAOLO legearen 87.2. artikulua izan duen aldaketaren araupenera egokitzeko).

Bestetik, arautzen da herritarrek sartu behar dutela boto-papera kutxan, eta ez hauteskunde-mahaiko buruak, orain arte araututa zegoen moduan (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 107. artikuluko 1. paragrafoa, HAOLO legearen 86.3. artikulua arautzen duenera egokitzeko).

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legearen 109. artikulua aldatzen da. “Besteak beste” esamoldea eranstean dio “hauteskunderi buruzko informazioa lortzeko” esapidearen aurretik, eta “hauteskunde-kolegioak” terminoaren ordez “aipatu lokaletako” adierazpidea hobetsi da.

“Hauteskunde-kolegioak” terminoaren ordez “aipatu lokaletako” esapidea erabiltzea zehaztasun terminologikoko kontua da. “Besteak beste” perpausa gehitzearen arrazoiak, berriz, honako hau da: hauteskunde-mahaiaren lokalaren barruan, euskal administrazioak izendatutako ordezkariak, partehartzeari eta bozketaren behin behineko emaitzei buruzko datuak batu ez ezik hautesleei bestelako informazioa ematen dietelako; hala nola, non bozkatu behar duten, hala behar izanez gero itsuei hauteskunde-mahaiaraino laguntzen diete, dietak ordaintzen dizkiete mahaietako kideei, etab.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko Legearen 112. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen da, hauteskunde-mahaiko kideen bozketa-prozedura gainerako hauteskundeetako prozedurekin parekatuz. Aldaketa horren xedea da mahaiko buruaren bozketa Estatuak hauteskunde guztietako nahiz hauteskunde autonomiko guztietako bozketarekin homogeneizatzea, HAOLO legearen 88.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz.

Hauteskunde-mahaien boto-zenbaketari dagokionez, hauteskunde-mahaiak botoen zenbaketa nola egin behar duen argitzen da, eta, zehazki, noiz ulertuko den boto baliogabea dela boto-paperean aldaketak egin direlako (aldatu egiten da 5/1990 Legearen 115. artikulua, HAOLO legearen 96.2. artikuluko araupenera egokitzeko).

Horrekin, botoa baliogabea izateko kariak zehazten dituen 115. artikulua testua hobetu nahi da, Hauteskunde Batzorde Zentralaren martxoaren 15eko 1/2012 Instrukzioak ezartzen duenarekin bat egiteko (BOE, 67. zk., martxoaren 19koa) eta

Espainiako Konstituzio Auzitegiak boto-paperen baliogabetzea dakarten aldaketei buruz uztailaren 14an emandako 123 eta 124/2011 epaiekin bat eginez. Halaber, kontuan hartu behar da Espainiako Konstituzio Auzitegiaren 167/1991 epaia, uztailaren 19koa, hauteskunde-mahaiari ez dagokion beste hauteskunde-barruti bateko boto-paperaren baliogabetzeari buruzkoa.

Bestalde, 124 Bis artikulua eransten zaio Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legeari, Lurralde Historikoaren Hauteskunde Batzordeak sartuz aurreproiektuan boto teknikoaren (AEHE botoa) zenbaketa egiteko. Horrek hobekuntza tekniko bat suposatzen du.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 129. artikuluko 9. paragrafoa aldatzen da, hautetsiak diren pertsonen izendatze aktari buruzkoa. Horrekin, 129.9 artikulua azken paragrafoaren idazketa hobetu nahi da, zehazteko Euskal Administrazioaren ordezkariari ematen zaion kopia, ezagutzeko, informatzeko eta herritarrei zabaltzeko xede hutsez ematen zaiola.

Boto elektronikoa buruzko kapitulua kentzen da.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen V. tituluko XI. kapituluaren numerazioa eta izenburua aldatzen dira. Hala, "X. kapitulua. Post arrunt bidez botatzeko jardunbidea" izatetik "X. kapitulua. Posta bidezko botoa" izatera pasatzen da. Numerazio aldaketa boto elektronikoa ezabatzei dator. Aldaketa horren ondorioz, 132 Octies artikulua 132 Bis izatera pasatzen da, eta 132 Nonies 132 Ter izatera.

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 144. artikuluko 9. paragrafoa erantsi zaio, artikuluko 7. paragrafoan aurreikusitako hauteskundeetarako dirulaguntzen bigarren aurrerapenari buruzkoa. Hain zuzen, artikuluko horren idazketaren zati bat ezabatzen da, ez baita beharrezkotzat jotzen lege-aurreproiektuak hitzez hitz jaso dezala 1/2003 eta 3/2011 Legeetako artikuluko oinarrikoetan ezartzen dena; izan ere, edozein kasutan, nahitaez aplikatu beharrekoak dira hauteskunde autonomikoetan.

Aldatu egiten da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 146. artikuluko h) hizkia, hauteskunde-gastutzat hartzeko hauteskunde-deialdia eta hautetsien izendapena egin bitartean alderdiek boto-asmoari buruz egiten dituzten inkestak eta zundaketak. Alderdi politikoek kontuan hartu beharko dituzte hauteskunde-inkestak eta –zundaketak hauteskundeetarako behar diren zerbitzuak eta jarduerak behar bezala antolatuzeko.

Gastu hori 146 h) artikuluan sartzen da, eta ez doa Hauteskunde Batzorde Zentralak 2012ko azaroaren 15ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki hartan, HBZk zundaketa eta inkesta horiek HAOLO legearen 130 artikuluko b) hizkian aurreikusita ez daudela besterik ez zuen esan –hautagaitzen propaganda eta publizitateari buruzkoa-, baina horrek ez du esan nahi gastu berri hori HAOLO legearen 130. artikuluko h) hizkitik ezabatzen denik.

#### **D) Hauteskundeetarako diru-laguntzak**

Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 151. artikuluan aldatu egiten dira aulki, boto eta hauteskunde-barruti bakoitzeko hauteskunde dirulaguntzen



zenbatekoa igoz Ekonomia eta Ogasun sailburuak 2012ko abuztuaren 30ean emandako Aginduaren arabera (Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legean jasotako zenbatekoei buruzkoa).

Halaber, igo egiten da hautesleei eginiko zuzeneko bidalketetatik (propaganda, kartazal, boto-paper edo hauteskunde publizitateko beste edozein elementu –mailinga-) eratorritako hauteskunde-gastuei aurre egiteko dirulaguntzen zenbatekoa.

Era berean, ezabatu egiten da Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 151.3 artikulua, lege bereko laugarren xedapen gehigarrian jasota baitago.

### **E) Emakumeen aldeko ekintzak**

Gaur egun indarrean den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Euskal Legearen barruan, Autonomia Erkidegoko hauteskunde-prozesuetan emakumeen aldeko zenbait ekintza bultzatzen dira, besteak beste, hauteskunde-mahaletako kide izateko desenkusen kopurua handituz eta %50eko kuota hautagaitzetako ordezkoen zerrenda-tarteari ere aplikatuz.

Zehatz esatera, haurdunaldia aurreratuta egotea eta edoskitzaro naturala onartzen dira desenkusa gisa (5/1990 Legearen 42. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen duen hamalagarren artikulua).

Horri dagokionez, EMAKUNDEK -Emakumearen Euskal Erakundea- aurreproiektu hau aldatzeko egindako proposamenen aipua egin behar dugu, memoria honetako 3. epigrafean aipatutakoak.

Mahaiko kide izateko desenkusa-kariei dagokienez, proposatzen digute lege-aurreproiektuaren hamalagarren artikulua honako hauek jaso ditzala:

- Haurdun dauden emakumei medikuak emandako baja hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gisa hartzea.

Gure ustez, proposamen hori aintzat hartuko bagenu, lege-aurreproiektuan jasotako emakumeen aldeko ekintza hori zati batean eraginik gabe geratuko litzateke. Gainera, proposamen hori aintzat hartzeak, lanean ez dauden emakumei desenkusa-kari horretaz baliatzeko aukera kentzea ekarriko luke.

- Hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gisa onartzea emakumeen erditu ondorengo nahitaezko atsedenaldira.

Gure ustez, desenkusa hori dagoeneko jasota dago, izaera orokorrean, lege-aurreproiektuaren hamalagarren artikuluan, amatasun-atsedenaldiaz gozatzen ari diren emakumeak barne hartzen dituenean.

- Amatasun- nahiz aitatasun-baimena dutenei, adin txikikoak nahiz mendeko pertsonak zaintzen daudenei hauteskunde-mahaiko kide izateko desenkusa gehitzea.

Gure ustez, inguruabar horiek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legearen 42. artikuluko 3. paragrafoko klausula orokorraren barruan sar litezke

desenkusa-kari gisa, baldin eta dokumentuen bidez justifikatzen badu familia-betebeharrek Mahaira joatea eragozten diotela.

- Alda dadila bederatzita hilerako arteko edoskitze naturalaren aldirian dauden emakumeen desenkusa-karia, horren barruan edoskitze artifiziala ematen dauden emakume zein gizonak ere sartzeko.

Lege-aurreproiektuak zentzu zabalean hartzen du edoskitzea. Beraz, edoskitze artifiziala ere barne hartzen duela ulertu behar dugu. Gai horretan gizonak ere kontuan hartzeari dagokionez, uste dugu lege-aurreproiektuan aurreikusitako desenkusa justifikaturik dagoela, emakumeen aldeko neurrien artean sartzen den aldetik. Gure ustez, desenkusa-kari hori gizonei hedatzeak lege-aurreproiektuan jasotako aurreikuspenaren edukia hein batean hustea ekarriko luke.

Ildo beretik, 5. paragrafoa erantsi zaio 5/1990 Legearen 50. artikuluari. Paragrafo horretan adierazten denez, hautagaitzek jarraipen bat osatzen dute, eta ordezkoei, berriz, zerrendako 25 zenbakiko titularrarekin, gehienez, 6 izeneko zati berri bat, hautagaitza bakoitzak dituen ordezkoi-kopuruaren arabera; horri ere %50eko kuota aplikatu behar zaio, aurreko zatiei bezala.

Hori egin da hautagaitzetako ordezkoei ere genero-kuotak aplikatzeko, Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak 2005eko martxoaren 17an hartutako Erabakia betez.

## **F) Beste hobekuntza tekniko batzuk**

Aurreproiektu honetan beste hobekuntza tekniko batzuk proposatu dira; esate baterako, 5/1990 Legeak pezetatan zituen kopuru guztiak eurotara pasatzea, lege horretako kopuruak euro konstantetan eguneratuz (Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriaren aldaketa).

Lege-aurreproiektu honek ere jasotzen du teknologia berriak nola erabili behar diren hauteskunde-agiriak elektronikoki betetzeko (Legearen 88.1 artikulua aldatzen duen hogeita hamalagarren artikulua) eta hauteskunde-sail, -mahai eta -lokalen zerrenda argitaratzeko (5/1990 Legearen 38. artikuluko 3. paragrafoa aldatzen duen hamahirugarren artikulua).

Bestalde, Legearen 46. artikuluko 3. paragrafoaren idazkera aldatzen da, aurreko idazkeran egon zitezkeen zalantzak argitzeko bozketa-egunaren zehaztapenari dagokionez.

## **V.- ARAUDIAREN INTZIDENTZIA ETA ADMINISTRAZIO-KARGEN ERAGINA**

### **1.- Arauaren intzidentzia**

Ziur aski, lege-aurreproiektuak eragingo dio abenduaren 23ko 220/2008 Dekretuari. Horren bidez, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili beharreko hautestontzi, kabina, boto-txartel, gutun-azal eta gainerako agirien eredu ofizialak eta ezaugarriak zehazten dira, baita material hori banatzeko prozedura ere; izan ere, dekretu horrek Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzko 5/1990 Legearen 88.1

artikuluak garatzea du helburu, eta, zehatz esatera, agindu hori da lege-aurreproiektuak aldatzen dutenetako bat.

Ildo horretatik, lege-aurreproiektuak aldatu egiten du Autonomia Erkidegoko Hauteskundeak buruzko Legearen 88.1 artikulua, eta hauxe gehitzen dio: “Halaber, dekretu horretan finkatuko dira Eusko Jaurlaritzako web orritik telematikoki jaitsi eta hauteskundeetan erabili beharreko agirien eredu ofizialak”. Horrela, aipatutako dekretua aldatu behar denik esaten ez den arren, oso litekeena da dekretua aldatzea, azaldutako aurreikuspena betetze aldera.

Azaldutakoa alde batera utzita, indarrean den araudian ez da antzematen lege-aurreproiektuaren bestelako intzidentziarik.

## **2.- Administrazio-kargen eragina**

Administrazio-kargatzat hartzen dira enpresek egin beharreko administrazio-izaera duten jarduerak, araudiak ezarritako betebeharrak betetzeko. Definizio horri jarraitzen diote enpresa-kudeaketa arduratsu batetik eratorritako administrazio-izaerako borondatezko jarduerak (diru-laguntzak eskatzea, boluntarioen erregistroetan izena ematea, zerbitzuko gakoak eskatzea...).

Enpresei dagokienez, administrazio-kargak dira enpresek beren gain hartu beharreko kostuak, haien jarduerari nahiz ekoizpenari buruz informazioa erraztu, gorde nahiz sortzeko betebeharrak beteko badituzte, eta hala egokituz gero, agintari publiko nahiz hirugarrenei eskura jarriko badizkiete, haiek onar ditzaten. Enpresen administrazio-kostuen azpimultzoak dira; izan ere, kargez gain, kostu horien artean daude, orobat, araudia indargabetuko balitz ere enpresek egingo lituzketen administrazio-jarduerak.

Aurreko irizpideak oinarri hartuta, eta aztertzen dihardugun arauaren helburu eta aplikazio-eremua zein diren kontuan hartuz, ondorioztatu beharra dago, lehenengo, arauaren hartzaille zuzenak, arauak zenbait betebeharrak ezartzen dizkien hartzailleak, ez direla enpresak edo profesionalak.

Printzipioz, proiektuak ez dio enpresa-sektoreari eragiten; ez, behintzat, enpresako titularrei irabaziak ematea helburu hartuta merkatuaren baldintzen arabera ondasunak eta zerbitzuak ekoizten eta zabaltzen duen unitate gisa ulertzen badugu enpresa.

Hortaz, ez da ikusten betebeharrak edo karga zuzen nahiz zeharkakorik herritarrentzat.

Hori horrela izanik, lege-aurreproiektuak ez dauka administrazio-kargarik enpresa-sektorearentzat eta herritarrentzat.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 2a

Eugenio Artetxe Palomar  
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendaria